2026KO URRIAREN 16A

begoñazpi aldizkaria

EBI elizbarrutiko ikastetxeak

begoñazpi ikastola



ONDO ELIKATZEA HEZTEA BE BADA

BEGOÑAZPI IKASTOLAN URTEAK DAROAGUZ JANTOKIKO MENUAK AZTERTU, EGOKITU ZEIN HOBETZEN. GURETZAT JANTOKIA JATEKO LEKUA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA: HEZKUNTZA-ESPARRUA BE BADA.

Gainera...

ORIENTAZIO AKADEMIKO PROFESIONALA

LH-KO IKASLEEN IBILALDIAK: BALMASEDA, GERNIKA ETA SAN MAMÉS

Elikadura osasungarria: lege barria, urteetako konpromisoa



2026ko apirilaren 16an indarrean jarri zan, ikastetxeetan elikadura osasungarri, orekatu eta jasangarriagoa sustatzeko neurri barriak ezarriko dauzan 315/2025 Errege Dekretua. Begoñazpi Ikastolan, ostera, bide hau aspaldi hasi genduan, urteak baitaroaguz jantokiko menuak aztertu, egokitu zein hobetzen.

Araudi barriak eskola-jantokietarako irizpide zehatzak ezarri dauz baina Begoñazpi Ikastolan elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa ez da barria. 2018an Ikastolako menuen auditoria egin genduan. Ordutik hona, hainbat aldaketa eta hobekuntza egin dogu, besteak beste, fruta fresko gehiago eskaini, barazki kopurua eta barietatea handitu, arrainaren eta lekaleen presentzia indartu, haragi-prestakinak murriztu eta sukaldaritza-teknika osasungarriagoak lehenetsi doguz. Beti be, nutrizio-kalitatearen eta ikasleen gustuen arteko oreka bilatuz.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Etorkizunerantz urratsak emoten

Batxilergoko 2. mailako ikasleentzat, etapa honetan erabakiak hartzeko orduan, orientazio akademikoak ezezik, profesionalak be berebiziko garrantzia izango dau. Horregaitik, beste urte batez, ikasleek aukera barriak ezagutu, zalantzak argitu eta bide desbardinak aztertzeko xedez, hainbat informazio-hitzaldi izango dogu. Ziur gagoz esperientzia honeek konfiantza handiagoz erabakiak hartzen eta aurrera egiteko norberaren bidea aurkitzen lagunduko deutsiena.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



LH3. mailakoek San Mamés hartu dabe

Lehen Hezkuntza 3. mailako neska-mutilak San Mamesen dagoan Athletic Cluben Museoan izan dira. *Proiektua* ikasgaiko edukiak lantzeko modua izan dogu, batez be, ahozko eta ahozko komunikazinoa ez dana aztertu eta garatuz.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Balmaseda: harremanak sendotu eta ingurua ezagutu

Ikasturte hasierako ibilaldi honen helburu nagusia alkar hobeto ezagutzea eta talde-harremanak sendotzea izan da. Jolasean, alkarlanean eta barre artean, lagunak egiteko eta talde moduan hazten jarraitzeko egun zoragarriaemon dogu.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Gure historia eta kulturaren aztarnen atzetik

Gelan lantzen dabilzan proiektuagaz lotura daben Euskal Herriko historia, kultura eta ohiturak hobeto ezagutzeko asmoz, LH 4. mailako ikasleak Gernikara joan jakuz.Nor garan eta nondik gatozan ulertzeko ezinbestekoa baita gure sustraien barri jakitea.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO